



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
19/11/2015

La Diputación reservará 160.000 euros en 2016 para impulsar el modelo "Housing First" para personas sin hogar

La diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado hoy en su comparecencia en Juntas Generales que su departamento reservará una partida económica de 160.000 euros para impulsar el modelo "Housing First" (lo primero la vivienda) con el que la Diputación persigue ofrecer una solución "integral" a las personas sin hogar en Bizkaia. Es un modelo innovador que plantea una forma diferente de afrontar el "sinhogarismo", facilitando viviendas accesibles y con carácter permanente a las personas sin hogar que se encuentran en riesgo de exclusión social.

La iniciativa, que se desarrolla "con resultados altamente positivos" en ciudades como Madrid, Barcelona o Málaga, se encuentra ahora en Bizkaia en fase de estudio, centrándose los esfuerzos en la búsqueda de "sinergias" entre las distintas administraciones públicas, para dar una salida al problema del "sinhogarismo" que afecta en Bizkaia a "175 personas", ha concretado Laespada. Otras "729 personas" estarían viviendo en alojamientos "impropios" (como casetas, chabolas, o vehículos). La mitad serían extranjeros -la mayoría sin papeles- y dos de cada diez, mujeres.

En este sentido, Laespada, tras ofrecer estos datos, ha señalado que los primeros colectivos en los que se intervendrá, a partir del año próximo, será el de personas con "enfermedad mental severa", el colectivo "más complejo" de actuar, a su juicio. El nuevo modelo, que espera pueda ser presentado "en menos de un año" exigirá que se ponga en disposición "una vivienda por persona", cuestión que puede resultar "más caro" si la Diputación tiene que salir al mercado libre y no puede utilizar el parking de vivienda pública existente, ha señalado.

La diputada ha respondido a EH Bildu que había pedido su comparecencia por los recursos que destina la Diputación para hacer frente al problema de los "sin techo", que el Servicio de Inclusión de la Diputación dispone en la actualidad de "399 plazas" por las que, en 2015, han pasado "613 personas". La inversión de la Diputación este año se sitúa en "8.382.000 euros", presupuesto que crecerá el año próximo hasta situarse en los "8.629.000 euros".

EH Bildu ha aplaudido la apuesta por el modelo "Housing First", pero cree que la situación actual requiere de una intervención "inmediata", especialmente en la Margen Izquierda, a un mes de comenzar el invierno. Abogan por la creación de un albergue permanente para personas "sin techo" en Barakaldo. Se apoyan en varios informes europeos que concluyen que el modelo de albergues que se aplica en Bizkaia no está reñido con el presentado por la diputada. Son compatibles. Para Laespada, esta política de albergues, cuya gestión corresponde a los ayuntamientos, "no es la solución" al problema del "sinhogarismo".

CUBIERTA DE SAN MAMES

A continuación, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comparecido a petición de Podemos Bizkaia, en la comisión de Economía y Hacienda, para informar de la última hora en torno a la idea expresada por el Athletic de ampliar la cubierta de San Mames. El



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

responsable foral ha afirmado que, por el momento, no existe un proyecto para la posible ampliación de esta cubierta, como solución al problema de que hay socios que se mojan en sus localidades cuando llueve, y ha añadido que "hasta finales de año o en el primer mes de 2016, no habrá una propuesta formal" del club.

Iruarrizaga ha señalado que hasta que no se conozca esta propuesta la Diputación no ofrecerá su opinión en el seno de la Sociedad San Mames Barria, si bien ha adelantado que en los presupuestos de 2016, no se contempla ninguna actuación en este sentido, aunque la Diputación "no se opondrá" a actuaciones de mejoras en San Mames por parte del club.

Iruarrizaga ha puntualizado que, "verbalmente", en el grupo de trabajo que se mantiene con el Athletic, se ha comunicado a la Diputación que el club está efectuando "diversas pruebas" y "estudiando alternativas", una de las cuales podría ser el alargamiento de la cubierta de San Mamés para que los socios no se mojen los días de lluvia.

Si bien la Diputación prefiere "esperar" a este informe, la mayoría de los grupos de las Juntas Generales de Bizkaia - Podemos Bizkaia, EH Bildu, PSE-EE y PP - han expresado ya su oposición a que la Diputación Foral aporte dinero público a la posible ampliación de la cubierta de San Mamés, al considerar que se trata de un problema del Athletic.

La juntera del PNV Janire Bijueska ha coincidido con Iruarrizaga en que es preciso "esperar" a que el Athletic presente un proyecto concreto antes de plantear actuaciones futuras.

AYUDAS PARA MATERIAL ESCOLAR

En la misma sesión de la comisión de Economía y Hacienda, el grupo juntero Popular Vizcaíno ha defendido una Proposición No de Norma para instar a la Diputación Foral a presentar "un conjunto de medidas fiscales de carácter progresivo" en función de la renta familiar y el número de hijos, dirigido a compensar la compra de material escolar. La idea ha sido desestimada por el resto de grupos de la Cámara que han tildado la misma de "electoralista", "populista", "incoherente", "chocante" o "sin concreción", entre otros calificativos.

Para Podemos, la propuesta supone un "acto de cinismo" por las acciones políticas de "recortes" que ha mantenido el Gobierno central del PP en materia de educación. PSE-EE y PNV le han recordado al PP la subida del IVA aplicada esta legislatura en el material escolar, que pasó del 4 al 21%. Además, "no cuadra pedir que se bajen los impuestos, y proponer una subida del gasto público", ha respondido el portavoz socialista Carlos Totorika al popular Javier Ruiz.

El grupo juntero Nacionalistas Vascos ha señalado que lo que pide el PP es un cambio en el IRPF, impuesto que fue modificado, en Bizkaia, en diciembre de 2013. En aquella ocasión, los populares "no propusieron ninguna medida fiscal" para la compra de material escolar, ha criticado el jeltzale Unai Lerma.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA
2015/11/19

Aldundiak 160.000 euro erresebauko ditu 2016an etxe bako pertsonentzako "Housing First" eredua bultzatzeko

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasunerako diputatu andreak Batzar Nagusietan izan dauen agerraldian gaur iragarri dauenez, bere sailak 160.000 euroko diru partidea erresebauko dau "Housing First" (lehenengoa etxebizitza) eredua bultzatzeko. Eredu horren bitartez Foru Aldundiak "erabateko" konponbidea emon gura deutse Bizkaian etxerik ez daukien pertsoneri. "Etxe barik egoteari" aurre egiteko bestelako modua planteetan dauen eredu barrizalea da, etxebizitza eskuragarriak eta izaera iraunkorrekoak eskiniz gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan etxe bako pertsoneri.

Madril, Bartzelona edo Malaga moduko urietan "oso emaitza positiboakaz" aurrera eroaten ari dan ekimena azterlan fasean dago une honetan Bizkaian, eta esfortzuak, herri administrazioen artean "sinergiak" bilatzen zentretan dira, Laespadak zehaztu dauenez, Bizkaian "175 pertsonarengan" eragina daukan "Etxe barik egotearen" arazoari aurre egin ahal izateko. Beste "729 pertsona" "duinak ez diran" lekuetan bizi dira (txabolatan edo ibilgailuetan, adibidez). Erdiak inguru atzerritarrak dira –gehienak paperik ez daukienak–, eta hamarretik bi, emakumezkoak.

Datu horreek emon ostean, Laespadak esan dau datorren urtetik aurrera programearen esku hartzea jasoko dauen lehenengo taldea "buruko gaixotasun larria" daukien pertsonen taldea izango dala, bere eretxiz esku hartzeko talderik "konplexuena" dana. "Urtebete baino lehenago" aurkeztea aurreikusten dan eredu barriak "pertsona bakotxaren esku etxebizitza bat" egokitzea eskatuko dau. Gai hori "garestiagoa" izan daiteke Aldundiak merkadu libreria urten behar badau eta dagoan etxebizitza publiko parkea erabili ezin badau.

"Etxe bako pertsonentzat" Aldundiak bideratzen dituan baliabideak azaldu daizan bere agerraldia eskatu dauen EH Bildu taldeari erantzunez, diputatu andreak esan dau Aldundiko Gizarteratze Zerbitzuak une honetan "399 plaza" dituala, eta 2015ean "613 pertsona" igaro dirala bertatik. Aldundiak aurten egingo dauen inbertsinoa "8.382.000 eurokoa" izango da, eta datorren urtean aurrekontu horrek gora egingo dau, "8.629.000 eurora" heldu arte.

EH Bilduk txalotu egin dau "Housing First" ereduaren alde egin dan apustua, baina uste dau gaur egungo egoerak "berehalako" esku hartzea eskatzen dauela, Ezkerraldean batez be, negua hasteko hilebete baino falta ez dan honetan. Barakaldon "etxe bako" pertsonentzat aterpetxe iraunkorra sortzearen alde agertu dira. Horretarako, Bizkaian apliketan dan aterpetxeen eredua diputatu andreak aurkeztu dauenagaz ez dagoala kontrajarrita erakusten daben Europako hainbat txostenetan oinarritu dira. Bateragarriak dira. Laespadarentzat, barriz, Udalek kudeetan dituen aterpetxeen politika hori ez da "etxe bako pertsonen" arazoari aurre egiteko "konponbidea".

SAN MAMESEKO ESTALGIA

Horren ostean, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren agerraldia gauzatu da, Podemos Bizkaiak eskatuta, Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

batzordean, Athletic Club taldeak San Mameseko estalgia handitzeko adierazo dauen ideari buruzko azken orduko informazioaren barri emoteko. Aldundiko arduradunak esan dauenez, oraindino ez dago euria egiten dauenean busti egiten diran bazkideen arazoa konponduko dauen estalgi horren handitze posibleari buruzko proiekturik, eta gehitu dauenez “urtearen bukaerara edo 2016ko lehenengo hilebetara arte ez da etorriko taldearen proposamen formalik”.

Iruarrizagak esan dauenez, proposamen hori ezagutu arte Aldundiak ez dau bere eretxia emongo San Mames Barria Soziedadearen barruan, baina aurreratu dau 2016ko aurrekontuetan ez dala aurreikusten horregaz lotutako ezelango jarduketarik. Dana dala, Aldundia “ez da egongo” taldeak San Mames hobetzeko aurrera eroan gura dituan jarduketan “kontra”.

Iruarrizagak adierazo dauenez Athletic Club taldeagaz gauzatzen dan lan taldearen barruan “ahoz” jakinarazo jako Aldundiari taldea “hainbat proba” egiten “eta alternatibak aztertzen” ari dala. Horreetako bat San Mameseko estalgia luzatzea izan daiteke, bazkideak ez daitezkan busti euria egiten dauenean.

Aldundiak txosten horri “itxarotea” gurago badau be, Bizkaiko Batzar Nagusietako talde gehienak -Podemos Bizkaia, EH Bildu, PSE-EE eta PP- Foru Aldundiak San Mameseko estalgiaren handitze posiblearako diru publikoa jaratearen kontra agertu dira, Athletic Club taldearen arazoa dala uste dabelako.

Janire Bijueska EAJ-PNV taldeko batzordekidea bat etorri da Iruarrizagagaz, etorkizunerako jarduketak planteau orduko Athletic Club taldeak proiektu zehatz bat aurkeztu arte “itxaron” behar dala esatean.

ESKOLAKO MATERIALERAKO LAGUNTZAK

Ekonomia eta Ogasuneko batzorde berean, Bizkaiko Talde Popularrak Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau, Batzar Nagusiek agindua emon deioen Bizkaiko Foru Aldundiari, familiaren errenta eta seme-alaba kopurua kontuan izanda “izaera progresiboa eukiko dauen neurri fiskal moltsoa” aurkeztu daian, eskolako materialearen erosketea konpentsetako. Ganerako taldeek ez dabe idea onartu, eta euren esanetan, proposamen hori “hauteskondeei begira egindakoa”, “populisteia”, “koherentziarik bakoa”, “harrigarria” edo “zehaztu bakoa” da, besteak beste.

Podemosen eretxiz, proposamena “zinismo ekintzea” da, PP taldearen Gobernu zentralak hezkuntza arloan gauzatu dituan “mozketako” ekintza politikoak kontuan izanda. PSE-EE eta EAJ-PNV taldeek legealdi honetan eskolako materialean aplikautako BEZ-aren igoerea gogoratu deusie PP-ri, %4tik %21era igo da eta. Ganera, “ez datoz bat zergak jaistea eskatzea eta gastu publikoaren igoerea proponidutea”, erantzun deutso Carlos Totorika bozeroale sozialistak Javier Ruiz bozeroale popularrari.

Batzarretako Euzko Abertzaleak taldeak adierazo dauenez, PP-k eskatzen dauena, Bizkaian 2013ko abenduan aldatu zan PFEZ aldatzea da. Aldaketa gertau zanean, popularrek “ez eben” eskolako materiala erosteko “ezelango neurri fiskalik proponidu”, kritikau dau Unai Lerma jeltzaleak.